Hernaniko Udala

sanmarko

HERNANIKO GARBIGUNEA ERABILTZEKO
SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAREN
ETA HERNANIKO UDALAREN
ARTEKO
HITZARMEN ESPARRUA

ZIOEN AZALPENA

I.- SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK udalerri desberdinetan hainbat GARBIGUNE eraiki eta kudeatzen ditu, besteak beste, tratamendu finalistara bideratutako hondakinen kopurua murrizteko, gaikako bilketaren indizeak hobetzeko, berrerabilpena sustatzeko eta konposta egitea bultzatzeko.

II.- Mankomunitateko Udalek laguntza logistiko garrantzitsua izan dezakete aipatu garbiguneetan, aurreko helburuekin bat datozen hondakinei buruzko politikak garatzeko orduan.

III.- Garbiguneak eraikitzeko Mankomunitateari lursailak laga dizkioten zenbait Udalek garbiguneen instalazioak Udalei beraiei erabiltzen uzteko baldintzapean egin dute, udal-zerbitzuetarako osagarriak izateko.

IV.- San Markoko Mankomunitateko garbiguneen zerbitzua erregulatzeko araudiak, Mankomunitateko Batzarrak 2012ko apirilaren 18an onartutakoak eta 2012ko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak, lehenengo xedapen gehigarrian hala dio: "Mankomunitatearekin lankidetza-hitzarmenak eginez, tokiko erakundeek hondakinak murriztu eta tratamenduak hobe kudeatzen dituzten jarduera-mota guztietarako instalazioak erabili ahal izango dituzte".

V.- Administrazioen arteko hitzarmen esparru honek erabilera arautzen duten jarraibideak xedatzen ditu.

PARTAIDEAK

ALDE BATETIK
AINHOA INTXAURRANDIETA EZKURRA San Marko Mankomunitateko lehendakaria den aldetik, 2011ko azaroaren 7an Mankomunitateko Batzarrak hala izendatuta.

BESTE ALDE BATETIK
LUIS INTXAUSPE AROZAMENA Hernaniko Udaleko (Gipuzkoa) alkate-lehendakaria den aldetik, 2012ko uztailaren 24ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera behar bezala ahalmendurik.

.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Udalari baimendutako zerbitzuak.

Mankomunitateak hurrengo erabilerak baimentzen ditu:

a) HERNANIKO UDALAK edo berak izendatutako enpresak udalerrietan egindako hondakinen gaikako bilketatik datorren materia organikoa transferi dezan MANKOMUNITATEAK gordetzen dizkion GARBIGUNEAREN instalazioak erabil ditzake.
b) HERNANIKO UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako HERNANIKO GARBIGUNEAREN instalazioetan kimaketa-hondakinak eta lorezaintzako hondar organikoak bota ditzake, horiek parke eta lorategi publikoen mantentze-lanetan sortu badira.
c) HERNANIKO UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako HERNANIKO GARBIGUNEAREN instalazioetan gaikako bilketarekiko desberdinak diren udal-zerbitzuetatik datorren errefusa bota dezake.

d) UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako GARBIGUNEAREN instalazioetan beste hondakinen zatiak bota ditzake, gaikako bilketaren zerbitzu orokorretik at bildu edo aldi baterako gordetzea beharrezkoa bada, besteak beste:

- Poliespana
- Artilea
- Papera eta kartoia
- Pixoihalak
- Eraikuntza-hondakinak
- Ontzi arinak
- Tamaina handiko hondakinak

Aurreko zerrenda ez da zehatza eta Mankomunitateko Lehendakaritzaren Ebazpenez zabal daiteke.

e) HERNANIKO UDALAK edo berak izendatutako enpresak HERNANIKO GARBIGUNEAREN instalazioetan hondakinen beste zati batzuk bota ditzake, Garbiguneko erabiltzaile partikularrentzat zehaztutako baldintza berdinetan.

f) HERNANIKO UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako HERNANIKO GARBIGUNEAREN instalazioetan norberak konposta egiteko egitura-elementuak bota ditzake. Helburua garbiguneko erabiltzaile partikularrek Udalak zehaztutako baldintzetan eraman ahal izatea da.

g) HERNANIKO UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako HERNANIKO GARBIGUNEAREN instalazioetan partikularrek konposta egin ondoren, sortutako produktua bota dezake. Helburua garbiguneko erabiltzaile partikularrek Udalak zehaztutako baldintzetan eraman ahal izatea da.

h) Mankomunitateari hala eskatzen dioten Hernani Udaleko elkarteek eta bizilagunen taldeek lehenengoarekin lankidetzan jardun dezake berrerabiltzera bideratutako hondakinak kudeatzeko orduan.

i) HERNANI UDALAK edo berak izendatutako enpresak HERNANIKO GARBIGUNEko baskulan hondakinen bilketa kontrolatzeko interesgarritzat jotzen dituen hondakinen zatiak pisatu ahal izango ditu.

BIGARRENA.- UDALAREN betebehar orokorrak

Hitzarmen honen bitartez, atxikitako Hernaiko Udalak ondorengoak bete beharko ditu:

1. Lehenengo akordioaren b), c) eta d) ataletan araututako hondakinak Udalak edo berak izendatutako enpresak Hernaniko garbigunean bota ondoren, hondakin horiek kudeatzeari dagokion kostua Mankomunitateari ordaindu beharko dio.
   Hernaniko Udalak eskatutako zerbitzua emateko, Hernaniko garbigunea jatorriz ez dituen ekipamenduez hornitu behar denean edo moldapen-lanen bat egin behar denean, Udalak Mankomunitateari ohiz kanpoko inbertsioen kostua ordaindu beharko dio.
   Hitzarmenean araututako Hernaniko garbigunearen erabilerarekin Hernaniko garbiguneko erabiltzaile partikularrei eta bizilagunei eragozpenik ez eragiteko, nagusiki, zaraten eta usainen eremuetan, behar bezalako zaintza-lanak egin eta bitartekoak jarri beharko ditu. Hitzarmen honen ondoriozko gorabeherak behin eta berriz errepikatzen badira, Udala jatorrizko arrazoia aztertzez eta arazoari konponbide egokia ematez arduratuko da, betiere arazoaren sortzaileak berez ebatzi behar ez badu.
4. HERNANIKO GARBIBUNEAREN instalazioak behar bezalako arduraz erabiliko ditu eta ohiz nahiz ohiz kanpo erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen kalteen erantzukizuna izango du, betiere MANKOMUNITATEAK legez kaltea ez duenean pairatu behar.

HIRUGARRENA.- Lanean segurtasunari buruzko HERNANIKO UDALAREN betebeharrak.

Lan-arriskuak prebenitzeko araudiak eta, bereziki, 171/2004 Errege Dekretuak, urtarrilaren 30ekoak, enpresa-jarduerak koordinatzearen arloan lan-arriskuak prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duenak, xedatutakoaren arabera, GARBIGUNEaren instalazioak erabiliko dituen Udalak eta horrentzat jarduerak garatzen dituzten kontratistek eta azpikontratistek lan-arriskuen prebentzio-printzipioak bete eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko jokabideak zehaztu beharko dituzte. Izan ere, garbigunearen erabilera prebentzio-printzipioak eraginkortasunez betetzearen araberakoa izango da.

Hernaniko Udala

sanmarko

Xede horrez, HERNANIKO GARBIGUNEA erabili baino lehen, bai Udalak berak, baita berarentzat jarduerak garatzen dituzten kontratistek eta azpikontratistek ere, MANKOMUNITATEARI zerbitzuak eskaintzen dizkion lan-arriskuen prebentzioko sozietatearen baimena lortu beharko dute aldez aurretik.

LAUGARRENA.- Mankomunitatearen betebeharrak.

Hitzarmen honen bitartez, Mankomunitateak ondorengoak bete beharko ditu:

1. Lehenengo akordioan deskribatutako zerbitzuak eskainiko ditu, betiere hitzarmena eragiten duen Hernaniko garbigunean horiek fisikoki posibleak badira.
2. Udal-langileei eta Hernaniko Udalak izendatutako enpresei Hernaniko garbigunerako sarrera eta baskularen erabilera erraztaraziko die, oro har, jendeari arreta eskaintzeko ordutegietatik kanpo, udal-zerbitzuen beharrek hala justifikatzen dutenean.
3. Lehenengo akordioko d) atalean xedatutakoaren arabera, botatako zatiei balioa ematearen ondorioz sortutako diru-sarrerak ordainduko dizkio Hernaniko Udalari.
4. Lehenengo akordioko a), b), c) eta d) atalei dagozkien hondakin-kopuruak, Hernaniko garbigunean botatakoak, erregistratuko ditu eta Udalari kopuru horiek hiru hilez behin jakinaraziko dizkio.

BOSGARRENA.- Garbigunea erabiltzeko orduan lehentasuna.

Hernaniko Garbigunearen muga fisikoak direla-eta, erabiltzeko orduan gatazkak sortzen badira, honako lehentasun-ordena aplikatuko da:

1. Mankomunitaterako eskainitako zerbitzuak.
2. Garbigunea kokatzen den udalerriko Udalari eskainitako zerbitzuak.
3. Mankomunitateko beste Udal batzuei eskainitako zerbitzuak; hitzarmenean lehenago atxiki den Udalari lehentasuna emango zaio.
4. Beste erakunde batzuei eskainitako zerbitzuak.

SEIGARRENA.- Jarraipen-batzordea.

Xedatutako guztia kontrolatu eta jarraitzeko, batzorde bat eratuko da hurrengo baldintzapean:

a) Batzordea Mankomunitateko eta Udaleko kide-kopuru berdinak osatuko du.
b) Mankomunitateko ordezkariak Lehendakaritzaren Ebazpenez izendatuko dira.
c) Udaleko ordezkariak Alkatetzaren Dekretuz izendatuko dira.
d) Batzordea gutxienez sei hilez behin bilduko da.

ZAZPIGARRENA.- Legezko esparrua.

Alpatu hitzarmena administratiboa da eta interpretatu nahiz garatzeko herri-administrazioen arteko hitzarmenei buruzko lege-antolamendu administratibo aplikagarriari erreparatuko zaio.

Interpretatu eta betetzeko orduan sor daitezkeen gai gatazkatsuak administrazioarekiko auzi eskumenekoak eta ezagutzakoak izango dira.

ZORTZIGARRENA.- Erantzukizuna mugatzea.

Esku hartzen duen alde bakoitzak bakarrik lankidetza-hitzarmen honen babesean hartutako konpromisoei atxikitako erantzukizunak onartuko ditu.

Hernaniko Udala

sanmarko

BEDERATZIGARRENA.- Iraupena.

Administrazioen arteko hitzarmen honek iraupen mugagabea du.

HAMARGARRENA.- Aldi baterako etetea.

Mankomunitateak hitzarmen honen aplikazioa aldi baterako eten diezaioke atxikitako Udalen bati honako baldintzetan:

1. Etenaldia Lehendakaritzak erabakiko du.
2. Etenaldiak Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek egindako txostenean oinarritu behar du. Txostenean Udalak hitzarmenean dagoen akordioren bat ez duela betetzen frogatu beharko da.
3. Ezingo da 15 egunetik gora eten.
4. Udalak etenaldia sortarazi duen erabilera okerra zuzendu beharko du.

HAMAIKAGARRENA.- Ebazpena.

Hitzarmen hau bakarrik bi aldeen arteko adostasunez ebatz daiteke.

Donostian, 2012ko uztailaren 27an.

sanmarko
Gaztelz, 10. 20018 Donostia
Tel 943 214 977

Hernaniko Udalaren aldetik

Luis Intxauspe Arozamena

HERNANIKO UDALA ALKATEZA

San Marko Mankomunitatearen aldetik

Ainhoa Intxaurrandieta Ezkurra